

Get Up Orona sarien lehenengo edizioa Mondragon Unibertsitatean.

2010/11/02

Joan zen ostiralean, Mondragon Unibertsitateko Arrasateko Campusean Goi Eskola Politeknikoko Karrera Amaierako Proiektuiektuak saritu zituen Oronak.

Unibertsitateko ikasketak amaitzen dituzten gazteak ikerkuntzara bultzatzeko sortu dira sariak, eta ikerkuntza eta hiri-mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloetako berrikuntzak uztartzen dituzten proiektuak balioesten ditu.

Mondragon Unibertsitateko Goi Mailako Ingeniaritzako azken kurtsoko 18 ikaslek aurkeztu dituzte karrera-amaierako proiektuak Oronaren Get Up sarien lehen edizioan.

Lehenengo saria, 1.500 eurokoa, Alaitz Zabalarentzat izan da, honako proiektu honengatik: "Desarrollo de modelos de simulación del desgaste en un sistema cilindro/plano para la aplicación en cables metálicos de ascensores" ("Higaduraren simulazio-ereduen garapena zilindroa/planoa sistema batean, igogailuetako metalezko kableetan erabiltzeko").

Bigarren eta hirugarren sariak, 750 bana eurokoak, ex aequo eman dizkiete Oier Kaltzakorta eta Nagore Perez Goldazarena ikasleei.

Lehenengoak "Tribological Behaviour of TPU-Cast Iron System" ("TPU-Cast Iron System-en portaera tribologikoa) izenburuko proiektua aurkeztu du, eta bigarrenak "Elevador para Viviendas Unifamiliares" ("Familia bakarreko etxeetarako igogailua") .

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Vicente Atxak eta Orona Elevation Innovation Centreko (EIC) Miguel Encabok aurkeztu dute ekitaldia.

http://www.mondragon.edu/gep/ficheros-de-noticias/orona-bilduma/view?set_language=eu

